

Oihana Recalde

- 23 urte
- Irun
- Sagardotarako sagar ekologikoak ekoizteko Sagarrek enpresa sortuko du

Fraisoro Nekazaritza Eskolan egin zenituen ikasketak eta orain GazteNek programaren bitartez zure enpresa-proiektua martxan jartzera zoaz. Argi izan duzu beti lehen sektoretik bizi nahi duzula?

Ez, ikasketa gehiago egin eta lanbide desberdinetan aritu nintzen hasiera batean, eta ondoren ikusi nuen, osabaren adibidea jarraituz eta gurasoen laguntzarekin, etxean nituen lursailei etekina ateratzeko aukera polita zela sagardotarako sagar ekologikoa ekoiztea, bizimodu polita izan zitekeela.

Zertan datza zehazki zure enpresa-proiektua?

Nire enpresa-proiektua, Euskal Herriko bariatateko sagardotarako erabiltzen diren sagarrondoak ekologikoki ekoiztean datza, sistema klonala erabiliz. Irun udalerrian Olaberria eta Meaka auzoan kokatuko dira sagastiak, guztira 6,7 hektarea izango dira, eta sagarraren salmenta inguruko sagardotegiei zuzendua izango da, adibidez Ola sagardotegiari.

Garrantzitsua deritzozu Aldundiak GazteNek bezalako laguntzak bultzatzea?

Bai, oso garrantzitsua iruditzen zait lehenengo sektorean gazteak sartzea, azken finean sektore hau gabe ezin genukeelako bizi. Gainera, azkeneko urteetan zehar sektore hau ahaztuta geratu da, baserritar asko jubilatzen ari dira eta ez dago jarraipenik. Sektorea bultzatzeko Aldundiak ateratako GazteNek programak, gazteak animatu eta ekonomikoki laguntzen ditu, sektorea galtzea saihestuz. Gaur egun Aldundiko laguntzak beharrezkoak dira, bestela oso zaila izango litzateke nirea bezalako enpresa planak aurrera ateratzea.

Zer esango zenieke lehen sektorean lanean hastearekin zalantzan dauden gazte horiei?

Sektore honetan lan egiteko lehenengo gauza da zure gustukoa izan behar dela. Ez da sektore erraza, eta lana batzuetan gogorra izan arren, gero bere alde onak dauzka, gogoz lan eginik gauzak lortzen baitira. Ametsak badauzkazue jarraitu egin behar dira eta laguntza eskatu, adibidez GazteNek programak laguntza bikaina eskaintzen du. Bizimodu polita bihurtu dezakezu zure lana.



“GazteNek programak gazteak animatu eta ekonomikoki laguntzen ditu”